



Asola

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Ásóla

“... la casería titulada Asola y sus pertenecidos radicantes en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz... en la Cofradía de Andicono que se compone de dos viviendas en piso bajo y alto, ocupa con inclusión de su amaga, zaguan, horno y la huerta una superficie de ciento treinta estados, o cuatro areas y cuarenta y cinco centiareas...”
DJE 3/154 or. (1877)



43° 10' 45"

2° 35' 18"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Baserri honen gaineko lehen arrasto dokumentala Bizkaiko su-erroldean aurki-tzen dugu, 1704. urtean: *Asola*. Hortik aurrera dokumentazioan aldaketa gutxi jasan ditu izen honek, gehienetan s hizkiaz idatzia agertuko da, eta beste batzuetan z hizkiaz.

Bizitza biko baserria da. Oso aldatuta dagoen arren, bistan dauka Berriz inguruan XVII. mendean hain hedatuta egon zen tankerakoa dela, hiru gorputzez osatutakoa. Aldamenetako

gorputzetan, beheko solairuan, harria erabili zuten hormak egiteko eta erdikoan, atartea egin zuten, egurrezko dintelak babestua. Hain da zabala, zutikoa daukala erdian. *Andikoaetxanagusian (Ikus Andikoaetxanagusia)* bezala, erdialdeko gorpu-tzaren egitura egurrezkoa da, lurrerainoko zutoinekin alboetan, eta tar-teetan adreilua usatu zuten. Etxearen kantalak harlanduzkoak dira eta hainbat horma luzitu eta pintatuta ageri dira.

toponimia

Ez dakigu zein den izen honen jatorria. Pentsatzekoa da honen atzean *Asua* toponimoa egotea eta “*Asuaren ola*” izatea, baina ezin da beste azalpenik alde batera utzi. Adibidez pentsa genezake asuri “*bildots*” hitza egon litekeela. Dena dela, bigarren azalpen honek ez gaitu betetzen. Ola hitzak bi adiera izan ditu euskaraz “*kortabaso*”, erdaraz “*sel*”, herri basoetan egiten ziren lur-hesi bereziak, itxura biribila zutenak, eta geroago gaur egungoa, burdina lantzeko lekua.